Jean de Brunhoff

# Babar Erregea



Picarona

Kontsultatu hemen gure katalogoa: www.picarona.net

BABAR ERREGEA
Testua eta irudiak: *Jean de Brunhoff*

1. argitalpena: 2023ko maiatza

Jatorrizko izenburua: *Le Roi Babar*

Itzulpena: *Iñigo Satrustegi*
Zuzenketa: *Fernando Rey*
Maketazioa: *El Taller del Llibre, S. L.*

© 2023, Ediciones Obelisco, S. L.
www.edicionesobelisco.com
(Eskubide guztiak erreserbaturik euskararako)

Argitalpena: Picarona, Ediciones Obelisco SLren haurrentzako zigilua
Collita, 23-25. Molí de la Bastidako industrialdea
08191 Rubí - Bartzelona - Espainia
Tel.: 93 309 85 25
E-posta: picarona@picarona.net

ISBN: 978-84-9145-646-9
LG B 3194-2023

*Printed in Spain*

Eskubide guztiak erreserbatuta. Argitaratzailearen aldez aurreko baimen idatzirik izan ezean,
inork ezin du argitalpen honen inongo parterik –azalaren diseinua barne– erreproduzitu,
biltegiratu, transmititu edo erabili inolako baliabideren bitartez, haiek elektronikoak,
kimikoak, mekanikoak, optikoak, grabaziokoak edo elektrografikoak izan.
Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu behar baduzu,
CEDROra jo (Eskubide Erreprografikoen Espainiako Zentroa, www.cedro.org)





Elefanteen herrialdean, Babar eta Celeste errege-erreginak pozik dira: bakea sinatu dute errinozeroekin, eta lagun amonatxoa etxean geratuko da. Batzuetan ipuinak kontatzen dizkie amonatxoak elefante txikienei. Zefir tximuak ere adi-adi entzuten ditu zuhaitzetik zintzilik.



Babarrek Celeste eta amonatxoa etxean utzi, eta aintzira handiaren bazterretik paseatzera joan da Corneliusekin, hau da, elefanteetan zaharren eta jakintsuenarekin. Honela esan dio:

—Egunero esnatzerakoan ikusi nahi nuke, hain da ederra! Hemen eraiki beharko genuke



gure hiria. Gure etxeak ur bazterrean egongo dira, lorez eta txoriz inguraturik.

Zefir haiekin joan da eta tximeleta baten atzetik dabil...



Tximeletaren atzetik ari dela, Arturorekin elkartu da, errege-erreginen lehengusu gaztearekin, barraskilo bila baitabil. Halako batean ordea, dromedario bat, bi, hiru... lau, bost, sei dromedario... zortzi, bederatzi, hamar... Ezin dira denak zenbatu, hainbeste dira. Dromedarioen taldean buru doanak galdetu die:

—Non dago Babar Erregea, mesedez?